



MEMORIA, INKLUSIORAKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARENA.
(3. zirriborroari erantsi zaio)

Edukia

I.	MEMORIAREN XEDEA.....	2
II.	IZAPIDEAK.....	2
i.	Legearen aurreproiektuaren bigarren zirriborroa	2
ii.	Alegazioen eta iradokizunen erantzuna jakinaraztea eta komunikatzea	3
iii.	Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena eta Aldebiko Batzordea osatzea (ETELen 90.3 artikulua).....	3
iv.	Legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa	4
III.	MEMORIA LABURRA, INKLUSIORAKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN HIRUGARREN ZIRRIBORROAN SARTU DIREN ALDAKETEI BURUZ	4
a.	SARRERA.....	4
b.	TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAK EGINDAKO TXOSTENAREN ONDORIOZKO ALDAKETEN ZERRENDA.....	6
c.	BESTE ALDAKETA BATZUK. OINARRI LABURRA	7
1)	Aldaketak, araugintza-teknika dela eta (garrantzitsuenak soilik).....	7
2)	Aldaketa substantiboak	11



I. MEMORIAREN XEDEA

Dokumentu hau egin dugu jarraipena emateko goian adierazitako aurreproiektua prestatzeko prozedura dela eta emandako dokumentuei. Dokumentu honetan aurreproiektua artikulatzeko modua, izapideei buruzko ikuspegia, kontsultetan eta txostenetan eginiko oharak eta ohar horiek kontuan hartzeko ala baztertzeko arrazoiak azalduko ditugu. Helburu orokorra behin betiko testua argiagoa izaten laguntzea da. Gero testu hori Gobernu Kontseiluari bidaliko diogu, haiek eztabaidatu eta onar dezaten, hala dagokionean.

Ondore horretarako, jarraipena ematen zaio 20210729 SVGII MEMORIA PROCEDIMIENTO izeneko dokumentuari .

II. IZAPIDEAK

Proiektua egin eta izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako bideari jarraitu zaio.

20210729 SVGII MEMORIA PROCEDIMIENTO izeneko dokumentuan Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa aurkeztu arte egin diren izapideak azaldu dira. Honako hauek dira:

- Aurretiazko jendaurreko kontsulta
- Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea
- Hasiera-agindua
- Europar Batasunaren aurreko izapidea
- Itzulpena
- Aldez aurretiko onarpenaren agindua
- Inpaktuaren gaineko txostenak
- Akatsak zuzentzeko agindua
- Jendaurreko informazioa
- Alegazioak aurkezteko eta nahitaezko txostenak eskatzeko epearen hasiera

i. **Legearen aurreproiektuaren bigarren zirriborroa**

Behin informazioa jendaurrean jartzeko izapidearen ondoriozko alegazioak eta ekarpenak jasota eta lehen zirriborroari buruzko txostenak sakon aztertuta, BIGARREN ZIRRIBORROA idatzi zen, eta 2021eko uztailaren 29an erantsi zitzaion espedienteari, aurreproiektuaren izapideak egiten jarraitzeko.

Zirriborro hori eta memoria hau ere espedienteari erantsi, eta Gardentasunaren atarian argitaratu dira.

Egun arte egin diren aldaketak eta aldaketen zergatiak azaldu dira 20210729 SVGII MEMORIA PROCEDIMIENTO txostenean. Artikuluen testua moldatzeaz gain, kasuren batean, artikulua batzuk zenbait artikulutan banakatu dira, argiagoak izan daitezen eta manua ulergarriagoa izan dadin.

ii. Alegazioen eta iradokizunen erantzuna jakinaraztea eta komunikatzea

Abuztuaren 16an erantsi zitzaizkion espedienteari, bai eta zegokionari jakinarazi ere, honako hauek egindako alegazio eta iradokizunen erantzunak: Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailak; Datuak Babesteko Euskal Bulegoa; EUDEL, Belaunaldi Galdua, ESK (zuzenean jasotako alegazioak), eta Gizarteratzeko Euskal Kontseilua eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.

iii. Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena eta Aldebiko Batzordea osatzea (ETELen 90.3 artikulua)

2021eko abuztuaren 16an eskatu zitzaion txostena Tokiko Gobernuen Batzordeari.

Batzorde horrek 2021eko irailaren 14an bidali zuen eskatutako txostena. Txosten horretan sei alegazio jaso dira, eta erantzun arrazoitua 20210915 RESPUESTA MOTIVADA RE.CGLE izeneko dokumentuan jaso da. Dokumentu hori espedienteari erantsi zaio.

2021eko irailaren 15ean, Tokiko Gobernuen Batzordeari bidali zitzaion Aldebiko Batzordea osatzeko eskaera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldebiko batzorde hori 2021eko urriaren 7an bildu zen. Bilera horretan jarrerak azaldu, eta hainbat konpromiso ere adierazi ziren. Bileraren aktan jaso ziren, eta espedienteari erantsi zaio.

iv. Legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborria

IDSBES legearen aurreproiektuaren HIRUGARREN ZIRRIBORROA egin da: bertan jaso dira ETGBrekin bildu ondoren egindako aldaketak. Zirriborro hori euskaraz eta gaztelaniaz erantsi zaio espedienteari. Ondoren, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio, une horretara arte jasotako dokumentu guztiekin batera.

Sartu diren aldaketak eta aldaketak egiteko arrazoiak III. puntuan azaldu ditugu.

III. MEMORIA LABURRA, INKLUSIORAKO ETA DIRU-SARRERAK **BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEAREN** **AURREPROIEKTUAREN HIRUGARREN ZIRRIBORROAN SARTU DIREN** **ALDAKETEI BURUZ**

a. SARRERA

Legearen aurreproiektua egiteko prozedura konplexua denez, komeni da beste zirriborro bat egitea eta bertan jasotzea izapide bakoitza betetzearen berri, baldin eta izapidea betetzearen ondoriozko aldaketak esanguratsuak badira, aldaketa kopuruarengatik edo aldaketaren esanahiagatik. Horrela egiazta daiteke xedapenaren testuak zer bilakaera izan duen izapidetzean zehar.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen (IDSBES) aurreproiektuaren hirugarren zirriborria etorri da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (aurrerantzean, ETEL) 90. artikuluan aurreikusitako txostena eman ondoren, 2021eko irailaren 14an eman ere. Dena den, zirriborroan sartutako aldaketak txosten horretaz harago doaz, batzuetan.

Edonola ere, kontuan hartu da legearen aurreproiektua izapidetzearen azken fasean dagoela, beraz, labur aipatu behar dugu bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) IDSBES barruan sartu dela, horrek eragiten dituen ondorioekin batera (adibidez, IDSBESko prestazioen titularren eta onuradunen eskubideak aitortzea, prestazioen araubide ekonomikoa arautzea eta BGDSaren onuradunei inklusiorako tresna eta zerbitzu erabilgarriak eskuratzeko eskubidea aitortzea, etab.).

Horren harira, kontuan hartu behar da 20/2020 Errege Lege Dekretuak, maiatzaren 29koak, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duenak, bosgarren xedapen gehigarrian jorratzen duela foru-lurraldeetan aplikatzea, eta hau ezarri duela:



«Foru-ogasunak izateak dakarren espezifikotasuna dela eta, foru-araubideko autonomia-erkidegoek beren gain hartuko dituzte, beren lurralde-eremuan, errege lege-dekretu honetan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari esleitzen zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak, Gizarte Segurantzaren bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara prestazio ekonomiko ez-kontributiboari dagokionez, 2020ko urriaren 31 baino lehen adosten den moduan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak eta zerbitzuak eskuratzen ez diren bitartean, Estatuko eta autonomia-erkidego interesduneko organo eskudunen artean sinatu beharreko hitzarmen baten bidez kudeaketa-gomendio bat adostuko da, bertan aurreikusten diren jarduerak egiteko, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoari dagokionez, haren bitartez onuradunei arreta osoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, bizitzeko gutxieneko errentaren prestazioaren kudeaketa administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoan egiteko».

Xedapen hori —transferentzia egiteko ezinbesteko eskakizuna inolaz ez bada ere— transferentzia egiteko borondatearen adierazgarri da.

Agerikoa da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari nahitaezko irizpena eskatzeko datan oraindik ez dela hartu eskualdatzeko erabakia, baina, aldi berean, egia da Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak arteko negoziazioak aurrera doazela, eta litekeena dela laster eskualdatzea BGDSaren kudeaketa osoa Euskal Autonomia Erkidegoari.

Hortaz, ez dago zertan aldatu aurreproiektuak dioena, IDSBESko prestaziotzat sartzen baitu BGDSa, zeinaren kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bereganatuko baitu (izan ere, horretan dihardu dagoeneko, aitorpen-ebazpena eman arteko bidean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sinatutako hitzarmen baten bidez. Hitzarmen hori 2020ko irailaren 1ean sinatu zen, eta urte bereko urriaren 30a arte luzatu, eta xedetzat du bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren kudeaketa administratiboa egitea Euskal Autonomia Erkidegoan). Era berean, ez dago zertan geroratu aurreproiektuaren izapidetzea, transferentzia egin arte.



Komeni da lege-proiektu gisa onartu arteko izapideak egiten jarraitzea, egiaztatzeko dauden izapideen ondoriozko aldaketak eginda, arrazoi hauek oinarritzat hartuta: eskualdaketa egin ondoren, BGDSa (Gizarte Segurantzaren prestazio ez-kontributiboa) IDSBESn sartzeko terminoen ziurtasuna; prestazio autonomikoa (DSBE) definitzea kontuan hartuta IDSBESko prestazioekiko bateragarritasuna eta babes-maila handiak finkatu beharra; aurreproiektuak bermatzen dituen prestazio ekonomikoen kudeaketa integratua, eta prestazioen onuradun guztiei inklusiorako tresnak eta zerbitzuak aplikatzeko modua.

b. TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAK EGINDAKO TXOSTENAREN ONDORIOZKO ALDAKETEN ZERRENDA.

(1) Txosten hori dela eta, hau sartu da zioen azalpenean: oinarritze labur bat, diru-sarrerak bermatzeko errentaren antolaketa eta kudeaketa osoa erakunde erkideei esleitzeari buruzkoa (legea lehen ebidentzia da), abiapuntutzat hartuta subsidiariotasun-, hurbiltasun- eta proportzionaltasun-printzipioak.

Horiek horrela, zioen azalpenean, VII. tituluari buruzko apartatuan (IDSBESren finantzaketa eta eskumen-araubideari buruzkoa), hiru paragrafo sartu dira aipatutako erreserba bermatzeko:

«Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei esleitzen zaizkien eskumenek Autonomia Estatutua, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea errespetatzen dituzte.

Azken horri dagokionez, esan behar da gaur egun udalerriei esleitutako ahalmenei eustea, funtsean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean oinarritzen dela; izan ere, lege horretan txertatzeari lotutako eskuduntza asko ezartzen dira (pertsonek informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa, gizarte-diagnostikoa, arreta pertsonalizatuko plana eta abar egitea), eta lege horrek ez du inolako aldaketarik eragiten.

Gainerakoan, udalei inklusioaren arloko plangintza-ahalmenak eta gizarte-larrialdietarako laguntzen arloko eskumen garrantzitsuak aitortzen zaizkie, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleitzen zaizkio diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitorpena eta kudeaketa, subsidiariotasun- eta proportzionaltasun-printzipioek ondorioztatzen duten bezala; izan ere, erkidego-mailan soilik bermatu ahal izango da eduki ekonomikoko eskubidearen definizioan beharrezkoa den homogeneotasuna, eta

maila bereko kudeaketak bakarrik bermatuko du aitorpen eta kudeaketa uniformeak egiten, bestela, ezinezkoa litzateke eta».

Era berean, tarteki bat sartu da 134. artikuluan. Bertan azaltzen da udalerriei gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko berezko eskumen gisa aitortzen zaien ahalmen-sorta (ETELen 17.1.14 artikulua).

134. artikulua.- Udalen eskumenak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, inklusioaren eta diru-sarrerak bermatzearen arloko eskumen propioen esparruan, honako funtzio hauek betetzea: (...)

132.1.c) eta d) artikuluetatik «koordinazio» terminoa ezabatu da, haren erabilera desegokia zelako.

c. BESTE ALDAKETA BATZUK. OINARRI LABURRA

Beste alde batetik, Lan eta Enplegu Sailean etengabe aztertzen ari dira aurreproiektuaren testua, eta araua egiteko prozesuan parte hartu duten eragileek aipatu dituzten alderdien gaineko hausnarketa ere egiten ari dira, bai eta beste alderdi garrantzitsu batzuei buruzkoa ere.

Horren arabera, legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroan ikus daitezkeen aldaketei lehen sailkapen bat egin dakieke, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenaren ondoriozko aldaketez harago, kontuan hartuta araugintza-teknika eta funtsezko arrazoiak. Hona hemen azalpena:

1) *Aldaketak, araugintza-teknika dela eta (garrantzitsuenak soilik)*

- Hirugarren zirriborroan 147 artikulua daude, hau da, bigarren zirriborroan baino bi artikulua gehiago, bi artikulua gehitu direlako.
- 28. artikuluko 2. apartatuaren edukia aldatu da.

28. artikuluko 2. apartatura ekarri dira enplegu-eskaintzari uko egiteko, lan-jarduera uzteko edo eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko debekuak. Prestazioaren bilakaeran izango duen garrantzia dela eta (hori bete ezean, prestazioa eten eta azkendu daiteke), komeni da informazioa apartatu espezifiko batean jasotzea, obligazioei eta debekuei buruzko artikuluan sartuta.



- 30. artikulua berria sartu da, betebeharratik salbuesteari buruzkoa.

Lehen apartatuko edukia ez da berria. Lehenago, 28.2 artikuluan zegoen, baina, araugintzaren teknika dela eta, komeni da unitate bereizi batean sartzea, eta manuaren eduki espezifikoak bide ematen du era autonomoan tratatzeko.

Bigarren apartatuaren edukia, ordea, berria da. Haren bitartez, prestazioaren titularrak eta onuradunak agertzeko betebeharratik salbuesteko aukera sartu da, baldin eta pertsona horien egoera fisikoa, psikikoa edo sensoriala, behar bezala egiaztatua, betebeharrak hori modu normalean betetzeko oztopo bada.

Aldaketak logika honi erantzuten dio: pertsonen ez ezartzea betetzeko zailak edo ezinezkoak diren betebeharrak. Berriaz adierazita, salbuespen sorta modu seguruan eta arrazoituan aplikatzen lagunduko du.

- 41. artikulua.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea

Prestazioa arrazoi formalengatik etetea zer den azaltzeko definizioa araztu da; baina soilik arrazoi formalengatik eteten denean, ez ordea, funtsezko arrazoiengatik egiten denean.

Horrela, etendura-kasuen zerrenda manutik ezabatu da, datuak beharrik gabe ez errepikatzen; izan ere, hurrengo artikuluek izenburutik beretik identifikatzen dituzte prestazioa eteteko ondorioa dakarten kasuak.

- Bi manutan banatu dira: batetik, eskatutako baldintzak aldi baterako galtzeak eragiten dituen etendura-kasuak; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko aldi baterako bizitokiari lotzen zaizkionak (gaur egungo 42. eta 43. artikuluek).

Araugintzaren teknika dela eta, komeni da manu berean sartzea eduki homogeneoa. Kasu horretan, ordea, kasuak ezberdinak dira, eta ondorio juridiko ezberdinak sortzen dituzte.

Halaber, 42.1.b) artikuluari bigarren paragrafoa gehitu zaio, eta etenduratik salbuesten ditu, prestazio edo pentsio publikoak eskatu ez arren, prestazio publikoaren zenbatekoa ezagutzen denean, kasu horietan ez baitago DSBEaren kopurua zehazteko oztoporik.

Horrela, etendura eragiten duen kasua zehaztasun handiagoz definitu da, eta horrek, azkenean, segurtasun juridiko handiagoa dakar.

Azkenik, prestazioa etetearen eta kopurua eguneratzeko prozeduraren arteko erlazioa argitu da.

- 44. artikulua. Etetea, osorik funts publikoekin finantzaturako egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario bateko plaza bat aldi baterako okupatzeagatik

Aldi baterako okupatzea edo betetzea zer den definitu da, 16.2 artikuluan ezarritakoa gora behera. Egokitzen jo da hori gehitzea, manua argitzen laguntzen duelako; berez ulertzen da, eta ez dago zertan beste batzuetara jo edo beste batzuen argitan interpretatu.

Era berean, prestazioa etetearen eta kopurua eguneratzearen arteko erlazioa argitu da.

- 45. artikulua. Betebeharrak ez betetzeagatik etetea.

Lehenengo apartatua aldatu da, eta gaur egun 28. artikuluan ezarritakoari erreferentzia egiten dio (obligazio zehatz batzuei baino ez).

Gaur egungo formulak 28. artikulura jotzen du, eta arrazoitua dago, manua oso luzea delako, eta artikulua bereizietan banatzea egokia ez delako, edukiaren osotasuna kontuan hartuta.

- 46. artikulua. Etetearen ondorioak

Titulua aldatu da, eta hobeto adierazten du manuaren edukia. Artikulua hiru apartatutan banatu da, preskripzioen homogeneotasunaren arabera: 1) etetea betearaztea; 2) iraupena; 3) prestazioa berriro ematen hastea.

- 48. artikulua. Prestazioa azkentzea

Prestazioa azkentzeko arrazoi honen aipua ezabatu da: «*Titularra hamabi hilabetetik gorako aldi batez sartzea izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko eta osorik funts publikoekin finantzaturako egoitza-zerbitzu batean, eta espetxe batean sartzea, erregimen arruntean edo itxian*».

Ez zaio beharrezko iritzi, b) letrako kausan jada sartuta dagoelako: «*b) Prestazioa mantentzeko eskatutako betekizunen baten behin betiko galtzea edo prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko betekizunak betetzen diren zehaztea ezinezkoa izatea, titularrari egotz dakioken arrazoiren batengatik*».

- 49. artikulua. Azkentzearen ondorioak

Lehen apartatuko b) letrako kasua behar bezala identifikatu da. Bigarren zirriborroan ez zegoen jasota espetxeratzea; horren orde, izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko eta osorik funts publikoekin finantzatutako egoitza-zerbitzu batean sartzeari aipatzen zen, iraupena alde batera utzita.

Prestazioa uko egiteagatik azkentzeko kasu biak c) letra berean sartu dira: bata prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubideari uko egitea; eta bestea Inklusiorako Programa Integratuari eta Pertsonalaren edukiari uko egitea.

- 50. artikulua. Prestazioa azkentzearen ondorioak adingabeak barne hartzen dituzten bizikidetzaren unitateetan

Hirugarren apartatutik kendu da adingabeen *baldintzak eta betebeharrak betetzeari* eragiten dioten inguruabarrak jakinarazteko betebeharrari eginiko erreferentzia. Berez, adingabeek ez dituzte DSBEa jasotzeko betekizunak betetzen (emantzipatuak egon ezean, eta kasu batzuetan baino ez). Era berean, eztabaidagarria da kasu gehienetan obligaziorik duten.

Testu hori ezabatuta, testua kongruenteagoa da, eta araua interpretatzeko segurtasuna handitzen da. Horrela, araua baliogabetzeraino eramango zuen exegesia galarazi da; bestela, interpretatu liteke, adina dela eta, ezin direla bete baldintzak eta betebeharrak.

- 81. artikulua. Zenbatekoaren eguneratzea

4. apartatuaren edukia aldatu da, prozedura horri eta prestazio osoa edo horren zati bat eteteko kasuei koherentzia emateko, baldin eta horiek eguneratze-prozeduran, eta ez lehenago, egiaztatutako beharrek baldintzak (bizikidetzaren unitateko pertsonen errentak eta inguruabar pertsonalak) ez betetzearen ondorio badira.

- 85. artikulua.- Adimen artifizialeko sistemen erabilera prestazio ekonomikoaren kontrolean

«Algoritmiko» terminoa ezabatu da, ulerturik ezen adimen artifizialeko sistemen erabilera aipatzea aski adierazgarria dela, eta sistema algoritmikoak ere barne hartzen dituela.

- 115. artikulua. Esku hartzen duten alderdiak (Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalari buruzkoa)

Bigarren apartatua ezabatu da, errepikakor iritsi zaio eta edukiari.

- 116. artikulua. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren edukia

Kendu egin zaio 5. apartatua, programa hori egiteko epeari buruzkoa, ulertuta programa egiteko gehieneko aldia behar bezala ezarrita dagoela 118.2 artikuluan.

- Azken xedapenetako lehena. 3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa aldatzea.

Xedapenaren testua araztu da, edukia aldatu gabe.

- Azken xedapenetako hirugarrena. Deslegeztatzea

Identifikatu dira diru-sarrerak bermatzearen arloko eskumena duen sailburuak zer manu aldatu ahal izango dituen, maila izoztearen ondorioak malgutzen aldera. Horretan, kontuan hartu da edukia ez dagoela lege-erreserba materialaren mende, aldagarritasunaren mende dagoela, edo egoera sozioekonomikoen arabera egokitu behar dela.

Legean sartu da testua koherenteagoa izan dadin, eta erregelamendu bidezko garapenaren balizko atzerapena legea erabat aplikatzeko oztoporik izan ez dadin.

Edonola ere, indize zuzentzailearen balizko aldaketa mugatu da, prestazioaren onuradunen onerako.

2) *Aldaketa substantiboak*

(1) Kolektibo zehatz batzuen eskakizunak (19. artikulua)

19. artikuluan kasu berri bat sartu da, prestazioa iristeko adin nagusiarekin betekizun honetatik jare utzita: eskaera egin aurretiko urtebetean modu independentean bizi izana.

Bazterketa-egoerak, balorazio espezializatu baten bidez egiaztatutako kalteberatasun-kasua baita, botere publikoen esku-hartzea justifikatzen du, prestazioa bermatuta eta inklusiorako prozesuari ekinda.

(2) Zenbatekoa:

a) Bigarren pertsona helduari dagokion banakako zenbatekoa handitu da, eta bigarren zirriborroaren 32.1.b) artikuluan ezarri zen % 30etik % 50era izatera aldatu da hirugarren zirriborroaren 33.1.a) artikuluan.

Aldaketa hori eginda, IDSBES Legea indarrean sartu ondoren, seme-alabarik ez zeukaten bizikidetz-unitateek jaso zezaketen kopuru-murrizketa ezabatzen saiatu da. Horrela, bermatu egiten da uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 6. artikuluekiko paralelismoa (dekretu hori familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa da).

b) Indize zuzentzailea aplikatzea.

Indize zuzentzailea aplikatzeko unea aldatu da. Indizeak jada ez du balio gehieneko errenta bermatua kalkulatzeko, ondorioa geroratu baitzaio, kopurua 34. artikuluan ezarritako arau orokorraren arabera zehaztu ondoren aplikatzen baita.

Asmoa da aurreko aurreikuspenak pertsona batzuei eragiten ziena eragoztekoa (zehazki, DSBEaren bidez kopuru oso txikiak jasotzen zituzten pertsonei). Izan ere, litekeena zen pertsona horiei prestazioaren aitortzea ukatzea, edo, are okerrago, pertsona horiek prestazioaren aitortzari lotutako eskubideak galtzea (adibidez, etxebizitzarako prestazio osagarria).

Indizearen aplikazioari lotutako edozein ondorio kaltegarri eragozteko —prestazioaren zenbatekoaren murrizketatik haratago, hori argitatzat eta zentzuduntzat jotzen da, etxebizitza partekatzeak sortutako eskala-ekonomien argitan—, esan bezala, indize hori 34. artikuluen ondoriozko zenbatekoari aplikatzeko erabakia hartu da. Horrek DSBEa gutxituko luke, baina ez eskubidea ez aitortzea.

Aldaketa hori funtsezkoa da, onuradunak izan daitezkeen aldekoa, eta komeni da manuaren kokapena aldatzea. Sistematikoki, egokiagotzat jotzen da zenbatekoa zehazteari buruzko artikulua eta gero idaztea manu hori, bigarren zirriborroan 34. artikulutik hirugarren zirriborroan 35. artikulura aldatuta.



- c) Seme-alabengatiko banakako osagarriak, zaintza partekatua aitortu zaien gurasoen familietan. Kopuruaren % 50eko murrizketa ezabatzea.

Neurri horrek ere onura egiten die seme-alabarik duten familiei. Eta kudeaketa ere hobetzen du.

Gaur egun, zaintza partekatua duten gurasoek osatutako bizikidetza-unitateei kalkulu konplexua egiten zaie: batetik, prestazioaren kopurua murrizten zaie¹, eta, gero, bizikidetza-unitateak guraso bakarreko unitatetzat jotzen dira, eta kopurua handitzen zaie, 147/2010 Dekretuaren 13.1.c) artikulutik ondorioztatzen den guraso bakarren kontzeptua modu zabalean interpretatuta.

Seme-alabei dagozkien banakako osagarrien % 50eko murrizketa jasota zegoen legearen aurreproiektuaren bigarren zirriborroan, baina unitate horiek guraso bakarreko unitateen definiziotik baztertzen zituen; hortaz, ezin zuten bildu 33.2 artikuluan guraso bakarra izateagatik ezartzen den osagarria.

¹ Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren alorrean dituen irizpideak 2017ko maiatzean eguneratu zituen, eta hauxe ezartzen da: Zaintza partekatua modalitate ohikoenean, adingabeak denbora-tarte berdinetan bizi dira guraso bakoitzarekin (adibidez, 15 egun bakoitzarekin, astebete bakoitzarekin, eta abar). Hortaz, honi jarraituko zaio DSBEaren zenbatekoa zehazteko:

ZAINZA PARTEKATUA	BIZIKIDETZA-UNITATEAREN GEHIENEN ZENBATEKOA	2017
1 seme edo alaba	Zenbatekoa = (BU1/30x15) + (BU2/30x15) + (GEHI/30x15)	804,58
2 seme-alaba	Zenbatekoa = (BU1/30x15) + (BU3/30x15) + (GEHI/30x15)	851,13 €
3 seme-alaba edo gehiago	Zenbatekoa = (BU1/30x15) + (BU3/30x15) + (GEHI/30x15)	851,13 €

Seme-alabak ez direnean bizi guraso bakoitzarekin denbora-tarte berean (adibidez: 10 egun batekin eta 20 egun bestearekin), honi jarraikiz zehaztuko da DSBEaren zenbatekoa:

ZAINZA PARTEKATUA	SEMEA EDO ALABA 20 EGUNEZ DUEN GURASOAREN BIZIKIDETZA-UNITATEAREN GEHIENEN ZENBATEKOA	2017
1 seme edo alaba	(BU1/30x10 egun) + (BU2/30x20 egun) + (GEHI/30x20 egun)	845,18 €
2 seme-alaba	(BU1/30x10 egun) + (BU3/30x20 egun) + (GEHI/30x20 egun)	907,25 €
3 seme-alaba edo gehiago	(BU1/30x10 egun) + (BU3/30x20 egun) + (GEHI/30x20 egun)	907,25 €

Agerikoa da horrek ondorio kaltegarria eragiten ziela familia horiei, eta hori galarazten saiatu da hirugarren zirriborroa, sistema bereko prestazioen arteko koherentzia kontzeptuala bermatzeko irtenbide baten alde eginda, halako moldez non guraso bakarraren kontzeptua ez den aldatuko BGDSaren eta DSBEaren artean, prestazio biak IDSBESn daudenean, eta, beraz, bizikidetzaren unitate berari aitortu ahal izango zaizkion.

Proposatutako irtenbidearen bitartez eragozten dira, batetik, gaur egungo disfuntzioak eta, bestetik, zaintza partekatua aitortuta duten bizikidetzaren unitateei edozein kalterik egiteko aukera. Horrela, unitate horietako seme-alabei esleitzen zaien banakako osagarriaren balioa bat dator seme-alaben hazkuntza, hezkuntza eta ongizatea elkarrekin euren gain hartzen duten gurasoen seme-alabei ematen zaienarekin; izan ere, zaintza partekatuan erantzukizun bera betetzen da, denbora txandaka antolatuta.

Aldaketarako azaldu diren arrazoiei hau gehitu behar zaie: zaintza partekatua eta zaintza mota egiaztatzeari lotutako dokumentuak aztertzeko eta beste eskakizun batzuk betetzeko betebeharra ezabatuta, kudeaketaren kostua ere txikiagoa da.

(3) Prestazioaren baldintzakotasuna murriztu da, inklusiorako prozesuaren bilakaeratik askatu delako, bi salbuespenekin bakarrik:

- a) Egoeraren eta premien hasierako balorazioa eta gizarte- eta lan-diagnostikoa egiten laguntzeko, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala egin eta sinatzeko, eta enplegurako prest egoteko betebeharra.

Betebehar hori zuzenean eta berehala lotzen zaio prestazioaren aitortpenari, baina lotura hori zentzuzkoa da, eta behar bezala dimentsionatua, pertsonaren zailtasunak gainditzea xede duelako, zioen azalpenean jaso denarekin bat. Gainera, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak irtenbide hori modu esplizituan bermatu du.

Oraingoari dagokionez, etetearen araubidea (ez azkentze-erregimena) soilik lotzen zaio Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala egiten laguntzeko eta sinatzeko betebeharrari; hortaz, prestazioa eteteko arrazoietatik kendu da hasierako balorazioa eta gizarte- eta lan-diagnostikoa egiten laguntzeko betebeharra ez betetzea (28.1.c) artikulua).

Betebehar hura ez betetzeagatik prestazioa eteteak proportzionaltasun-azterketa gainditzen du (bizikidetzaren unitateari ez zaio inolaz ere prestazioa kentzen), eta horren arrazoiak ezinezko

bihurtzen dela pertsonaren zailtasunak gainditu ahal izateko gizarteratzeko ibilbide koordinatua ezartzeko aukera.

Gainera, kontuan hartu behar da ez betetze horrek luze iraungo duela (programa hori sinatzen denean, gehieneko epea hamabost hilabetekoa da, prestazioa onartzen denetik zenbatuta; eta ez betetze horrek sei hilabete iraun dezake, beraz, ia bi urte igaroko lirateke, diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitorpenetik); beraz, nekez justifikatu daiteke inklusiorako konpromiso falta hain larria.

b) Enplegurako prest egoteari lotutako betebeharrak betetzea.

Lehenik eta behin aipatu behar da betebeharrak hori behar bezala argitu dela aurreproiektuan, betebeharrak hori ez betetzea justifikatuta dagoen kasuak identifikatu direlako. (Ikus 45. eta 48. artikulua).

Bigarrenik, aurreproiektuan zehaztu da zer kasutan dagoen onuraduna salbuetsita enplegurako prest egoteko eta Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala sinatzeko betebeharratik (ikus 30. artikulua).

Manu horretan azaltzen diren kasuak ikusita, ondoriozta daiteke ezen hauei bakarrik eskatuko zaiela enplegurako prest egoteko betebeharrak betetzea: laneratu ahal direnei edo enplegarritasuna hobetzen zentzuz aritu daitezkeenei (lan-diagnostikoan ezarritakoaren arabera).

Horiek horrela, prestazioa eteteko eta azkentzeko erregimena betebeharrak horri lotzeak zentzuzkoa eta neurritsua dirudi (larritasunaren eta itzulezintasunaren arabera), justifikaziorik gabe zapuzten baitu pertsonaren zailtasun ekonomikoei irtenbide bideragarri eta posible bat emateko aukera (beste era batean ezin izango da eten edo azkendu).

Aipatutako kasuetan, pertsonak bere borondatez uzten dio baliabideak lortzen saiatzeari (egitatea eta inguruabarrak kontraesaneko prozedura batean aztertu beharko lirateke), eta horrek prestazioa jasotzeko eskubidea kausarik gabe uzten du.

Azkenik, prestazioaren baldintzakotasun-galtzea justifikatzeari dagokionez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko eta azkentzeko kasu hauek ezabatu dira:



- 45. artikuluan prestazioa eteteko jaso diren kasuen artean, ezabatu egin da Programa Integratu eta Pertsonalean bildutako konpromisoak eta obligazioak errespetatzeko betebeharra ez betetzea (bigarren zirriborroaren 43.1.a artikulua).

Laneratzearekin zerikusia duten ez-betetzeen intzidentzia behar bezala tratatu dela iritzi zaio, Programan sar daitezkeen gizarte-inklusionarako konpromisoekiko lotura kenduta; izan ere, konplexuagoak dira konpromiso horien balorazioa, arrazoiak eta bilakaera.

Are gehiago, gizarte-inklusionarako konpromisoak ez betetzeak askotarikoak izan daitezke, hainbat arrazoiren ondoriozkoak, baina horrek ez du zuzenean eta berehala sortzen premia ekonomikorik, nahiz eta zeharka eragina izan dezakeen. Horrenbestez, hori ez da aintzat hartzen.

- Arrazoi berarengatik kendu da hau diru-sarrerak bermatzeko errenta sei hilabetez eteteko arrazoiaren artetik: prestazioaren titularrak edo onuradunak Inklusionarako Programa Integratu eta Pertsonalean hartutako betebeharrak eta konpromisoak behin eta berriz ez betetzea (aurreko zirriborroan, 44.3.c artikulua; egungo 46.2.c artikulua).
- Diziplinazko kaleratzea kendu egin da prestazioa azkentzeko arrazoietatik (bigarren zirriborroaren 46.1.j artikulua, eta gaur egun 48. artikulua). Horrela, onartu egiten da Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak Gizarte Eskubideen Gutunaren 13. artikuluari buruz egindako interpretazioa, zeinaren arabera artikulua horren kontrakoa baita gizarte-laguntza kentzea falta astunarengatik kaleratutakoei.
- Prestazioa azkentzeko kasuetatik kendu da honako hau: «28.1 artikulua *a), e) eta h) letretan aurreikusitako betebeharrak bera ez betetzeagatik hiru etete-ebazpen irmo bi urteko aldian. Hori, artikulua honetan xedatutakoa eragotzi gabe, enplegu-eskaintza bati uko egiteari, lan-jarduera borondatez uzteari, lanpostuan borondatezko baja hartzeari edo diziplinazko kaleratze baten xede izateari buruz» (bigarren zirriborroaren 46.1.f artikulua, gaur egun, 48. artikulua).*

Jokabide gaitzesgarrietan berrerortzeagatik ondorioen larritasuna gero eta handiagoa izatea zehapen-prozeduraren berezko ezaugarria da. Aurreproiektuak aurreikusten dituen azkentze-kasuak eskubide subjektiboa aitortzeko arrazoirik ezarekin justifikatzen dira (baldintzak galtzea, uko egitea edo inklusionarako helburua betetzea ezinezkoa izatea titularrari egotz dakioken arrazoiren batengatik), eta kasu horretan ez dago argi prestaziorako arrazoirik eza..

Laburbilduz, bi zutabe hauetan oinarritzen da legeak prestazioaren eta inklusio-prozesuaren artean eraikitako baldintza bakarra: a) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala egitea; b) laneratzeko konpromisoa, baldin eta lan-diagnostikoan ondorioztatu bada pertsona horrek lan-eskaintza bati edo enplegarritasuna hobetzeko zerbitzuei erantzun ahal diela.

(4) Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoen eta laguntzen preskripzio-epea murriztea. 65. artikulua

Preskripzio-epea bi urtera murriztu da. Hauek uztartzea da asmoa: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren osotasuna zaintzea, eta, bestetik, ziurtasunik eza edo zalantza eragotzi beharra zor-aitorpena edo zorra kobratzeko akzioa erabakitzeke egotearen ondorioz, bereziki kaltegarri baitzaie kalteberatasun-egoeran daudenei edo egoera horretan egoteko arriskuan daudenei.

Preskripzio-epea laburtzea bat dator egungo prestazio-ereduak eragindako bidegabeko diru-sarrerak murrizteko helburuarekin, gaur egungo eredia ez baita gai bizikidetzaren unitateen egoera-aldaketei aldi baterako erantzungo dien kudeaketari aurre egiteko eta kudeaketa eraginkorra bultzatzeko. Aurreproiektuan, gutxienez, prestazio onartuen bi urtez behingo kontrola ezartzen denez, preskripzio-epea bi urtekoa izatea egokitzat jotzen da.

(5) 69. artikulua harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubideari buruzkoa da, eta kendu egin zaio hirugarren apartatua, elektronikoki harremandu beharra erregelamenduz ezartzeko parametroei buruzkoa.

Apartatu hori kentzeak zalantzak argitzen laguntzen du; izan ere, aurreproiektua izapidetzean, zalantzak sortu dira harremanak bitarteko elektronikoen bidez egin beharrari buruz, obligazio hori epe ertainera edo epe laburrera ez baita aurreikusi.

Egokitzat hartu da obligazio hori geroratzea, harik eta kolektibo horren errealitate sozioekonomikoak halakorik eskatu arte. Bestalde, inguruabar hori urrun dagoela jotzen da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak oso heterogeneoak direlako.

(6) 81. artikulua. Prestazioa eguneratzea

Bigarren eta laugarren apartatuen idazketa txukundu da, interesdunek prozedura horretarako ematen duten dokumentazioaren garrantzia argitze aldera; eta jaso egin da, ezaugarriak kontuan hartuta, izapideak erraztuko direla.

Era berean, prozeduraren iraupena ezarri da, 30 egun, 39/2015 Legearen 97. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Bosgarren apartatuan jorratzen da zer gertatuko den eguneratze-prozedurak agerian jartzen badu, eskakizunak aldi batean betetzen ez direlako, prestazioa eteteko arrazoiren bat dagoela (benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izatea alde batera utzita, horren logikoa ezberdina baita).

Helburua legearen aplikazioa erraztea da, baita araua aplikatzen dutenei zalantzak ezabatzea, etendura-kasuen eta zenbatekoa eguneratzeko prozeduraren arteko elkarrekintzaren inguruan.

Era berean, bosgarren apartatuak dio ebazpen berantiarrak ezingo duela deklaratu bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egotz badakioke epe barruan ebazteko betebeharra ez betetzea.

Interesdunen onurarako zentzuzko araua da. Ez da komeni interesdunei ondorio larria ezartzea beste batzuen den eta Administrazioari egotzi ahal zaion inguruabar batengatik. Bestela, interesdunei eskualdatuko litzaieke beste batzuek egindako ez-betetze baten erantzukizuna.

(7) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoak azkentzea kendu da Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala suntsiarazteko arrazoietatik (122.1 artikulua).

Horrek berriz ere erakusten du legeak bideratzen duen lotura, sistemako prestazio ekonomikoen eta gizarteratze-prozesuaren artekoa, behar-beharrezkoa dela lan koordinatua eta behar bezala ordenatua egin ahal izateko, pertsonen egoera hobetu eta beharizan-egoera behar bezala baloratze aldera, halako moldez non prestazioaren zenbatekoa eta haren existentzia bera ezin diren aldagaitz geratu, tartean den pertsonak benetan beste baliabide ekonomiko batzuk lortu ahal dituenen.

(8) Beste funtzio bat gehitu zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskaritzari (93. artikulua)

Honetan datza: kontrol-prozedura hastea eta izapidetzea, hargatik eragotzi gabe Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek haren organo zentrali edo lurralde-organoei esleitzen dizkieten eskumenak. Oinarrizko funtzio nagusiaren ondorio logikoa da hori, legearen xedapenak betetzen direla eta, bereziki, prestazioen titularrek eta onuradunek baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela zaintzea eta ziurtatzea, alegia. Hori da, hain zuzen ere, kontrol-prozeduraren berezko esparru substantiboa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 8a

Adierazitako guztian kontuan hartu dira eskumena duten sailek emandako justifikazioak eta argibideak, prozedura osoan zehar gaur arte sortutako gai guztiei dagokienez,

Francisco Pedraza Moreno

Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria.